287. zk.
Bigarren aroa
Urriak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa
Erletxea informazio bulegoa
4. orrialdea

Kirolak
Xabier Alonso ultrafondista
9. orrialdea

3 Erreportajea Amaita, haurdunaldian laguntzeko elkartea
5 Berriak
8 Kirolak Goi mailako kirolari gazteak Leka Enean
11 Haurren Lanak Txingudi LH2
12 Gazteen lanak Eguzkitza DBH1
13 Erreportajea Sacco musika taldea
14 Gazte infor.
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA
Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Adrian Arruti
Santiago kalea, giro goibelarekin.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 39231

Sarasate karrika

Argazkian Sarasate karrikan dagoen Beraun etxea ikus daiteke. Kale hau Beraun zonaldean dago. Fermin Calbeton, Eskoleta eta Eliza karrikak lotzen diren tokitik irten, eta Gernikako Arbola plazan amaitzen da.

Kalea 1926an zabaldu zen, Jose Salis jaunarena zen Beraun etxearen lurretan.

1979ko irailaren 6ko Osoko Bilkuran Uranzu Koalizio Independienteak proposamena egin ondoren jarri zioten izena.

Pablo Martin Meliton Sarasate Navascues, mundu mailako biolin jotzaile ospetsua, Iruñean jaio zen 1844ko martxoaren 10ean, eta Miarritzen hil zen, 1908ko irailaren 21ean. Musikari baten semea, haurtzarotik erakutsi zuen musikarako dohaina zuela, eta zazpi urte besterik ez zituela kontzertu bat eman zuen jendaurrean, arrakasta handia lortuz. Bere lehen maisua, A Coruñan, Jose Curtier izan zen.

Irun hiriari dagokionez, biolin jotzaile ospetsuari buruz datu gutxi daude. Sarasate hil zenean bere gorputza Iruñera eraman zuten, eta Irungo geltokitik igaro zenean, musika munduko pertsonalitate ugarik eskaini zioten merezitako omenaldia.

Sarasateri eskainitako kaleak, lehenago beste izen bat eduki zuen. Zeahazki, 1937ko maiatzaren 26an Calvo Soltelo kalea izena jarri zioten.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Guraso izateko erabakiak zeharo aldatuko du bizitza. Ardura handiko erronka da haurra sortu eta hura heztekoa. Horregatik, komeni da prestatzea, eta ahal dela, profesionalen eskutik formazioa jasotzea. Hori errazte aldera, Amaita Elkartea sortu dute Irunen, arlo ezberdinen arteko lan bateratua eskaintzeko asmoz. Irene del Campo emaginak, Josune Goikoetxea gorputz hezitzaileak eta Aitziber Estonba soziologo eta sexologoak osatu dute lan taldea. Formazio saioak eskainiko dizkiete Irungo gurasoei.

Asegarria izan dadin

Haurdunaldian, erditzean eta ondorengo hezieran laguntzeko, Amaita elkartea sortu dute

Elkarlanak emaitza osoagoak eman ohi ditu, arlo gehienetan. Horixe frogatu nahi izan dute Amaita Elkartean, guraso izateko prozesuari begira. Orain arte, bakoitzak bere kabuz lan egin izan du, baina bat egin dute, formazioa aberasteko asmoz. “Ikuspegi globala behar dugu, bakoitzak bere ekarpena eginez. Denok jasoko ditugu elkarlan horren onurak: amak, bikoteak eta jaioko den haurrak”, aldarrikatu du Josune Goikoetxeak. Amaitan ez dira haurdunaldiko azken hilabeteetara edo erditzearen momentura mugatuko. Haurdunaldi osoa, eta ondorengo heziera ere kontuan hartuko dituztela adierazi du Aitziber Estonbak. “Oso epe berezia da gure bizitzetan, eta askotan, ez dugu behar bezala zaintzen”.

Orokorrean, lehen haurra eduki behar dutenean, gurasoek informazio gabezia handia izaten dutela uste du Goikoetxeak: “Ez dakite zein baliabide dituzten eskura. Eta askotan, ez dituzte espazio erosoak topatzen, beldurrak edo zalantzak azaleratzeko”. Amaitan, astean saio batean parte hartzea proposatzen dute, taldeka. “Taldea oso errekurtso ona da. Taldean heztea, gure artean elkarri laguntzea, ideia polita da”, aipatu du Estonbak. Larunbat goizetan elkartzea planteatzen dute, haurdun dauden emakumeen bikoteek ere hurbiltzeko aukera izan dezaten. Haien parte hartzearen garrantzia azpimarratu du, hain zuzen ere, Josune Goikoetxeak: “Haurdunaren bikotekideek espazio mugatua izan ohi dute. Baina zergatik ez lagundu ibilbide osoan? Haurdun egotea plurala da”.

“Zergatik ez lagundu ibilbide osoan? Haurdun egotea plurala da”
Josune Goikoetxea, gorputz hezitzailea

Bikote heterosexualak, homosexualak eta guraso bakarrak ere badaude gaur egun. Hala ere, Aitziber Estonbak ez du uste alde handirik dagoenik: “Bakoitzak ditu bere handicap-ak. Zein indargune duen eta zein ahulezia izan dezakeen aztertu beharko du, horiei aurre egiteko. Ama bakarrak babestuko duen norbait bilatuko du. Edonola ere, denok behar izaten dugu laguntza sare bat. Zentzu horretan, formazio taldea egokia izan daiteke”. Estonba bera, duela zortzi urte hasi zen talde batean, bere lehen haurra edukitzera zihoanean. Gaur egun, talde hartako kideekin elkartzen jarraitzen du.

Saioen nondik norakoak

Bi zatitan banatuko dituzte lan saioak. Lehenengoan, Irene del Campo emaginak, beharrezkoak diren informazioa eta datuak emango ditu. Galderei eta beldurrei erantzungo die, eta alde emozionala ere landuko du, Estonba sexologoarekin elkarlanean. Hasieran, zalantza gehienak gorputzeko aldaketei eta erditzeari buruzkoak izaten direla onartu dute. Hor sartzen da Goikoetxea gorputz hezitzailearen lana: “Mugimenduaren bidez, emakumeari gogora arazten diogu, bularra emateko, erditzeko eta haurra zaintzeko gai dela. Konfiantza edukitzeko, gorputzak dituen baliabideak ezagutzea ezinbestekoa da”.

Aitziber Estonba, Irene del Campo eta Josune Goikoetxea.

Erditzeari dagokionez, bikotearengan uzten duen sentsazioa azpimarratu dute. Egindakoarekin pozik geratzea, erditze naturala, edo instrumentalizatua izan. Erditze traumatiko batek ondorioak utz ditzakeela azaldu du Estonbak: “Desira falta handia duten emakumeak ezagutu ditut, erditzean izan dituzten esperientzia negatiboengatik”. Erditzea traumatikoa izan ez dadin, aurreiritziak eta presioak baztertzearen garrantzia nabarmendu dute, frustrazioa besterik sortzen ez dutelako.

Erditzearen ondoren etorriko dena ere, ardura handiko lana da. “Familia izatera pasatzea ez da gauza txikia”, gogorarazi du Goikoetxeak. Familia ekosisteman egongo den aldaketan sakondu du Aitziber Estonbak: “Bi izatetik hiru izatera pasatzea da, eta zaila da hiruetako inor ez atzean gelditzea. Nekearekin, estres egoerekin, gertatzeko aukera handiak daude. Ideala da bikotekide bakoitzak bere harremana edukitzea haurrarekin, eta haien artekoa mantentzea”. Halako gaiak lantzeko, erditzearen ondoren ere lan saioetara joaten jarraitzea komeni da.

Badaude gurasoak inolako informaziorik nahi ez dutenak, ez dutelako obsesionatu nahi. “Ez dut uste irtenbide ego kia denik”, adierazi du Estonbak: “Azken finean, informazioarekin beti irabazten duzu. Kontua da informazio hori nola kudeatzen duzun”. Heziera kontziente baten alde egiten dute Amaitan. “Ezin da da imajinatu zenbat egoera, zailtasun, traba, potolo edo txiki, bizi daitezkeen. Profesionalekin, eta talde batekin babestuta baldin bazaude, askoz errazagoa izango da”, aldarrikatu dute. Interesa duenak 622 247 523 telefono zenbakira deitu edo amaitaepcc@gmail.com helbide elektronikora idatz dezake.



RUTH LOPEZ HERRERO, Erletxea bulegoko arduraduna:

“Bulegoko atea gurutzatu duten pertsona guztiek esan duten lehenengo gauza da haien helburua lan egitea dela”

Sarritan ezkutuan gelditzen den errealitatea da pobreziarena. Itzalean bizi da bazterketa sozialean, edo haren arriskuan dagoen jendea. Egoera horiek bizi dituzten irundarren arazoak gertutik ezagutzen ditu, hain zuzen ere, Ruth Lopez Herrerok, ia lau urte baitaramatza Erletxea bulegoan. Gizarte laguntzen inguruan ohikoa izaten den informazio gabeziari erantzuteko sortu zen proiektu herritarra, 2012an. Kale Nagusiko 5.ean dago Erletxea, eta astelehenetan zabaltzen ditu ateak, 12:00etatik 13:30etara.

Zein da Erletxea egitasmoaren helburua?

Kontua da, erakunde publikoek laguntza sozialei buruz eman behar luketen informazioa ez dela behar bezain osoa izaten. Hutsune horren aurrean, alde batetik, prestazio horiek eskatzen dituztenei informazioa ematea dugu helburu. Bestetik, Irunen ezkutuan geratzen diren hainbat errealitate azaleratu nahi ditugu.

Gaurkotasun gaia izaten da, askotan, laguntza sozialena, eztabaida politikoen iturri.

Okerrena da, gaia komunikabideetan agertzen denean, laguntzak jasotzen dituen jendeak iruzurra egiten duela esateko dela. Irudi hori ematen da, behintzat, eta kasu gehien-gehienetan, ez da benetakoa. Kasu bat azaleratzen da, eta jendeak pentsatzen du hori dela ohikoena. Horrek eragiten du jende txiroaren kriminalizazioa, eta hainbat aurreiritzi: gezurtiak direla, engainatu egiten dutela, ez dutela lan egin nahi, eta laguntzen kontura bizi nahi dutela.

Aurreiritzi horiek gezurtatu dituzue, proiektuaren ibilbidean zehar?

Bulegoko atea gurutzatu duten pertsona guztiek esan duten lehenengo gauza da haien helburua lan egitea dela. Baina X denbora daramatela langabezian, ez dutela dirusarrerarik, eta prestazio sozialetara jotzea beste erremediorik ez dutela.

Komunikabideetan entzuten denaz aparte, ezagutzen al ditu, jende gehienak, gizarte laguntzak?

Jendea ez da haiengatik gehiegi kezkatzen, eskatu behar dituen momentura arte. Erletxearen lehenengo hilabeteetan, udaleko Gizarte Zerbitzuetatik sekula pasatu gabeko jendea hurbildu zitzaigun. Orokorrean, jendeak ez daki halako egoera batean nora joan behar duen, edo zer eskatuko dioten.

Zein da laguntzak eskatzen dituen jendearen profila?

Bertako jendea izaten da gehiena, komunikabideetan ikusten dugunari erreparatuta, kontrakoa dirudien arren. Batez ere emakumeak, nahiz eta senarrarentzako laguntzei buruz galdetzera etorri. Laguntza sozialak eskatzeko estigma horren aurrean, emakumeak izaten dira aurrera pausoa ematen dutenak.

Atzerritarrak etorri izan dira, ez dizkietelako laguntza bat jasotzeko baldintzak ondo azaldu, edo ez dutelako ulertzen zergatik ez dieten laguntza bat eman. Egoera horien aurrean etorri izan dira migranteak Erletxera.

Zeintzuk dira haien arazo nagusiak?

Erletxearen ibilbidean zehar eraldatu egin dira. Hasieran, informazio eskaerak ziren gehienak. Momentu honetan, jende gehiena etortzen da erreklamazioak egiteko babesaren bila. Laguntzak eten dizkietelako, edo atzeratutako ordainketak eskatu dizkietelako. Irregulartasunak eta inkoherentziak topatu dituztela esaten dizute laguntzak kudeatzen dituzten erakundeek, eta laguntzak eten egiten dizkizute. Egoera horren aurrean erreklamazioa egin beharra dago, eta prozesua administrazioaren aurkako helegite batekin amaitu daiteke.

Horrelako prozesu batean sartzeko, ezinbestekoa izango da Erletxearen edo beste entitateren baten babesa.

Bai. Baina jendeari esan behar dioguna da, administrazioaren aurkako epaiketak irabaz daitezkeela, eta irabazten direla. Epaile askok arrazoia eman dietela horrelako egoerak bizi dituzten familiei. Aholkularitza egoki batekin, lor daiteke. Hori bai, oso garrantzitsua da azkar mugitzea. Erreklamazioak egiteko epeak oso laburrak direlako.

Denboraren aldagaia funtsezkoa izango da, halako kasuetan.

Baliabiderik gabeko pertsona batentzat, ezinbestekoa da. Gizarte laguntza moztu dizutenean, erreklamazioa tramitean dagoen bitartean, bizitzak aurrera darrai. Etxearen alokairua eta fakturak ordaindu behar dira, jan egin behar da, eta gainerako gastuei aurre egin behar zaie.

Denborarekin lotuta, beste joera bat azpimarratu beharra dago, informazio ezak eragiten duena. Jende askok prestazioen bila jotzen du, aurrezki guztiak agortu dituenean. Hori akatsa da. Informazio gehiago emango balitz, eta pedagogia pixka bat egingo balitz, ez litzateke hori pasako. Garaiz kontzientzia hartzea garrantzitsua da.

Nolakoak dira gizarte laguntzak jasotzeko baldintzak eta betebeharrak?

Gero eta zorrotzagoak dira. Azkenean, hainbeste trabaren aurrean, jende askok amore ematen du. Gero komunikabideetan ikusten dugu, adibidez, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen jendearen kopuruak behera egin duela. Baina ez da hori kontuan hartzen.

Horrek frustrazioa, antsietatea eta bestelako arazo psikologikoak sor ditzake?

Jakina. Oso egoera konplexuak bizitzen dira, baliabide eskasia dagoenean. Lotsa sentitzen dugu, gure burua gutxiesten dugu etab. Zirkulu arriskutsuak sortzen dira, eta jende asko laguntza psikiatrikoaren beharra izatera iritsi izan da. Gure helburuetako bat da jendeari ulertu araztea arazoa ez dela haiena bakarrik. Jende gehiagok bizi dituela antzeko egoerak. Bazterketa soziala denon arazoa da. Ez du norberak bere porrot gisa ulertu behar, ez baita horrela. Egoera ezberdin pila bat daude, bazterketa sozialera eraman dezaketenak.

Uste dugu, erakunde publikoak ez direla errealitate horri irtenbide orokor bat ematen saiatzen. Petatxuak besterik ez dituzte jartzen, banan-banako arazoak konpontzeko. Erroan dauden arazoak handiagoak dira: enpleguarena edo etxebizitzarena. Horiei aurre eginda, bazterketa sozialeko egoera asko ekidin daitezke.

Euskara praktikatzeko aukera emango dute Mintzalaguna eta Elkarrizketariak egitasmoek

Mintzalaguna eta Elkarrizketariak programak aurkeztu ditu Irungo Udalak, ikasgelaz kanpo euskara praktikatu nahi duten hiritarrei zuzenduta. Urriaren 10ean hasi da horietan izena emateko epea, eta hilaren 21era arte egongo da zabalik. irun.org/euskara web gunean egin daiteke.

B1-B2 mailako ikasleentzako egokia da Mintzalaguna. Bospasei laguneko taldeak osatuko dituzte, jendearen ordutegien, beharren eta interesen arabera. Taldeari gehien komeni zaion ordua eta lekua hautatuko dituzte. Taldekideetako batek euskara menderatuko du, edo euskaraz bizitzeko ohitura edukiko du. Bera arduratuko da taldea dinamizatzeaz. “Zerbait hartu, paseo bat eman, edozein ekintza egingo dute, baina beti euskaraz eta giro onean”, azaldu du Josune Gomez Euskara arloko ordezkariak.

Hasiberrientzat, Elkarrizketariak

Maila apalagoa duten euskara ikasleei zuzendua egongo da Elkarrizketariak (A1-A2 mailak). Hamabostean behin elkartuko dira, jarduera ezberdinak egiteko: ekintza kulturalak, irteerak, afariak, mintzamen saioak, euskarazko tailerrak (sukaldaritza, argazkilaritza etab.).

Hitzarmena sinatu dute Irungo Udalak eta Iberdrolak, egoera ekonomiko ahulean daudenen alde

Irungo Udalak eta Iberdrola energia enpresak akordioa sinatu dute. Hitzarmenaren arabera, egoera ekonomiko ahulean dauden irundarrek fakturak ordaintzen ez dituztenean, ez diete argindarraren edo gasaren hornidura etengo. Hiritarrek gizarte zerbitzuei abisua pasa beharko diete, eta balorazio tekniko baten ondoren, laguntza ekonomiko bat jaso ahal izango dute, gastuei aurre egiteko. Diru hori jaso bitartean, ez diete hornidura etengo.

Urte amaierara arte iraungo du hitzarmenak, baina baieztatu dute “modu tazituan” berrituko dutela urtero. Bi entitateek akordioaren jarraipena egiteko batzorde bat sortuko dute. Bakoitzak bi kide jarriko ditu eginkizun horretan. Bestalde, energia konpainiak hitz eman du energia efizientziari buruzko aholkularitza emango duela.

Arartekoaren balorazio positiboa

Donostia, Bilbo eta Gasteiz izan dira momentuz, hitzarmena izenpetu duten udal bakarrak. Irun da laugarrena. Hori dela eta, Manuel Lezartua EAEko Arartekoak akordioaren balorazio baikorra egin du. “Ekintza solidarioen adibide egokiak dira”. Ekimena euskal udalerri eta energia enpresa guztietara hedatzeko deia egin du. Iberdrolak jakinarazi du EUDEL, Udalen Erakundearen bitartez, udaletxe txiki eta handi guztiek bat egin ahal izango duten hitzarmen marko bat sortzea duela helburu.

Inkesta

Zer behar du Irunek? Zer aldatuko zenuke?

Elena Villar

Irunen, txikientzako parke asko daude, baina hamazazpi urtetik gorako gazteentzat ez dago aukera handirik. Batez ere neguan, normalean Mendibil Merkataritza Gunean lurrean botata ikusten ditut. Horregatik uste dut leku bat behar dutela beraientzat, aisialdirako.

Bestalde, faltan botatzen ditut parke gehiago, jendea han egon ahal izateko.

Anduska Anavaltoska

Gustatuko litzaidake txikientzat dauden parkeetariko baten bat estalita egotea. Euria egiten duenean, ezin gara egon, eta pena da.

Halaber, autobusetan igotzerako erraztasun gehiago izan behar genituzke, umearen orga eramaten dugunok. Zaila izaten da igotzea.

Ibai Roca Berridi

Kiroletako ekitaldi eta jarduera gehiago egotea beharrezkoa dela ikusten dut Irunen. Kanpoan bizi izan naiz denbora luzean, hemen ezin izan dudalako nire kirola praktikatu. Taekwondoa egiten dut, eta hemen ez dago aukera handirik.

Dena den, etorri naizenean Irun oso aldatuta ikusi dut, batez ere San Juan plazako zonaldea.

Iñaki Campo

Hemen falta dena lana da. Bost urte pasa ditut langabezian, eta ez dut ezer aurkitu. Nire ustez, diru-laguntza gehiago eman behar lituzkete, enpresariek kontratazio gehiago egin ahal izateko. Azken finean, enplegua gehiago sustatu.

Javier Muñoz

Hendaiako aldean zubia pasa bezain pronto igogailu bat jarri zuten, pasarela batekin lotzeko. Irunen Behobian egingo dute, baina, uste dut, behar handiagoa dagoela zubitik Plaiaundira joateko.

Bestalde, trafikoarena Irunen ezin da hobetu... Baina zerbait egin beharko litzateke.

Gauza sinple asko daude egiteko. Adibidez, parkeak gehiago zaindu. Txakurra daukat eta badakit zertaz ari naizen.

KOLDO ELORZ, Asistencia Familiar 24 enpresako kudeatzailea: “Neurrira egindako jantzien modukoa da kasu bakoitza”

Uztailean zabaldu zituen ateak Asistencia Familiar 24 frankiziak Irunen duen bulegoak. Mendeko diren pertsonei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu. Koldo Elorz Azpiroz da kudeatzailea, eta proiektua gizarteratzeko lanean dabil. Hala ere, azpimarratu du ahoz-ahokoa dela, haientzat, propagandarik onena: “Ondo egindako zerbitzuaren, edo jasotako tratuarekin pozik dagoen familiaren ondorioz heltzen dena, hori da balio gehien duena”. Enpresaren inguruko xehetasunak eman ditu, dena den.

Zein da Asistencia Familiar 24ren lan eremua?

Mendeko diren pertsonen arreta zerbitzua kalitatezkoa izan zedin zen nire asmoa. Estatu mailako frankizia ezberdinak aztertu nituen, eta Astistencia Familiar 24 zen segurtasun gehien ematen zidana, nire ideia Behe Bidasoan aurrera eramateko. Haiekin harremanetan jarri nintzen, eta azkar jarri ginen ados.

> “Familia bakoitzak behar, ordutegi, baldintza eta aurrekontu ezberdinak ditu”

Ezagutzen zenuen sektorea?

Gobernuz Kanpoko Erakundeetan ibili izan naiz gaztetatik. Gero, Larrialdiak anbulantzia enpresan lan egin dut urtetan, oinarrizko bizi euskarriko anbulantzia baten gidari. Hor argi ikusi nuen, mendeko pertsonei eskaintzen zaien zerbitzua nahiko eskasa dela. Etxebizitza batzuetara goizaldean iristen ginen, eta zaintzaileek edo askotan familiek, ez zuten jakiten zein botika hartzen zuen pertsonak, edo ez zituzten azken mediku txostenak eskura.

Zerbitzu eskaintza zabala du enpresak, bezeroaren beharren araberakoa, ezta?

Neurrira egindako jantzien modukoa da kasu bakoitza. Familia bakoitzak behar, ordutegi, baldintza eta aurrekontu ezberdinak ditu. Kasu bakoitzera egokitu beharra dugu, eta zerbitzuak asko izan daitezke: etxebizitzen garbiketa, adinekoen zaintza, laguntza ospitaleetan, anbulatorioetan edo anbulantzietan... Oso-oso zabala da.

Langileen formazioan sakondu beharko duzue horretarako.

Lanbiden formazioa eskaini nahi dugu, 2017tik aurrera profesionaltasun txartela eskatuko dietelako sektoreko langile guztiei. Estatuko beste lekuetan horretan hasi da Asistencia Familiar 24 enpresa, eta ez du arazorik eduki.

Zenbat langile dituzue, eta zein da langile horien profil nagusia?

14 langile ditugu kontratatuta, eta 140 pertsonako lan poltsa dugu. Lan elkarrizketak egiten ditugunean, bilatzen duguna da pertsona horiek enpatia edukitzea, argi eduki dezatela pertsona bat zainduko dutela. Hori da garrantzitsuena. Tratuak pertsonalizatua, enpatikoa eta goxoa behar du izan.

> “Tratuak pertsonalizatua, enpatikoa eta goxoa behar du izan”

Alderantziz ere bai. Familiak ulertu beharko du langilea pertsona dela.

Inolako zalantzarik gabe. Aita edo ama zaintzen ari den langilea pertsona da, eta bere betebeharrak eta eskubideak ditu.

Urtetan erregularizatu gabe egon den lana da, eta oraindik ere ikuspegi hori du jende askok.

Bai, askok uste dute langile horiek nominarik edo asegururik gabe joan daitezkeela. Baina zorionez, pixkanaka, langileen urtetako lanak lortuko du halako egoerak baztertzea. Asistencia Familiar 24n argi dugu langileek lan baldintza duin batzuk eduki behar dituztela.

Argi dago gero eta eskaera handiagoa izango dutela zerbitzu horiek.

Bai, populazioa ziztu bizian zahartuz doa. Gainera, lehen, adineko gurasoak etxean zaindu ohi genituen. Gaur egun, dugun bizimoduagatik eta emakumezkoak lan munduan sartzea lortzen ari direlako, gurasoak lehenago gelditzen dira bakarrik. Horregatik behar dira halako zerbitzuak, gero eta gehiago. Administrazioa ez da heltzen behar guztiak estaltzera.

Sara Martinez, Elene Sagardia eta Ane Rivera.

Goi mailako jokalari goiztiarrak

Hiru gaztetxo irundar ariko dira aurten Leka Eneako emakumeen talde nagusian

Harrituta hartuko dute, Emakumeen Superdibisioko aurkariek, Leka Enea mahai tenis elkarteko taldea. Izan ere, 13 eta 14 urteko hiru gaztetxo irundar ariko dira, txandaka, Irungo elkarteko emakumeen talde nagusian. Ane Rivera, Elene Sagardia eta Sara Martinez Leka Eneako belaunaldi gazteko ordezkariak dira. Ez dituzte elkartearen hasierako urte prekarioak ezagutu. Sonia Etxazarreta teknifikazio zentro modernoan ikasi dute mahai tenisean, eta maila handia lortzen ari dira, ziztu-bizian. Europan ere lehiatuko dira aurten.

Sara Martinez da hiruetan gazteena. Bi taldekideak baino lehenago hasi zen, ordea, mahai tenisean. “Aitak animatu ninduen probatzera, zortzi edo bederatzi urte nituela”, gogoratu du. Gustatu zitzaion, eta aurrerantzean mahai tenisa izan da bere kirol jarduera nagusia. Iaz egin zuen debuta Superdibisioko taldearekin, Europako ETTU Cup lehiaketako kanporaketan. Elene Sagardiak eta Sara Martinezek Superdibisioko ligan jokatzeko aukera izan zuten joan den urtean. Bizpahiru urte daramatzate mahai tenisean, eskola kirola amaitu ondoren hasi baitziren. Sagardiak udako ikastaroa batean egin zuen proba, eta atsegina iruditu zitzaion: “Zeharo ezberdina da, beste kirolekin konparatuta”.

Aurten, Superdibisioko taldearen ligako eta Europako hitzorduetan parte hartuko dute hiruek, txandaka. Orain arte ezagutu dutenarekin aldean, zailtasuna askoz handiago adela onartu du Ane Riverak: “Oso onak dira aurkariak, gu baino askoz azkarragoak. Erreakzio gaitasuna landu behar dugu”. Ados daude taldekideak. Sagardiak, baina, beste ezaugarri bat azpimarratu du: “Esperientzia dutela nabari da. Gu oso-oso urduri jartzen gara. Burua kontrolatzen ikasi behar dugu”. Horretarako, lagungarri dute taldekide helduagoen babesa. Adin tartea handia izanagatik ere, harremana ona dela baieztatu du Sara Martinezek: “Oso ondo moldatzen gara”.

Klubaren asmoak

Superdibisioan aritzea saria izango da hiru neskentzat. Hala ere, haien taldea, Lehen Mailakoa izango da. Ohorezko Mailara igotzea izango dute helburu, eta horretarako, sailkapeneko lehen hiru taldeen artean egon beharko dute. “Superdibisioan, Ohorezko Mailan, eta Lehen Mailan eduki nahi genituzke taldeak”, aitortu du Gorka Fernandez nesken entrenatzaileak. Superdibisioko taldearen helburua, lehen sei sailkatuen artean egotea izango da, hurrengo urtean ere Europa mailan lehiatzeko. Dena den, Fernandezek ez die gaztetxoei presiorik sortu nahi: “Maila handiagoko aurkarien kontra jokatzera ohitzen joan daitezen nahi dugu”. Etorkizunerako apustua da Leka Enearena.

Asteburu betea izango da urriaren amaierakoa

Hitzordu bikoitza izango du Leka Eneak Irunen, urriaren 29tik azaroaren lehenera doan zubi luzean. Batetik, ETTU Cup Europako lehiaketako lehen kanporaketa jokatuko du emakumeen talde nagusiak etxean. Portugalgo, Turkiako, Luxenburgoko eta Italiako taldeak izango dituzte aurkari. Aurrera egitea zaila izango dela uste du Fernandezek. Hala ere, neska gaztetxoentzat esperientzia ederra izango dela azpimarratu du.

Bestalde, Espainiako Txapelketako fase zonala antolatuko du Leka Eneak. Galiziako, Asturiasko, Gaztela-Leongo, Cantabriako eta EAEko 400dik gora jokalari bilduko dira, maila guztietakoak. Kategoria bakoitzeko lehen zortziek, Espainiako Txapelketako azken faserako txartela lortuko dute. Artaleku kiroldegian egingo dute, Sonia Etxazarretak ez baitu tamaina horretako lehiaketa hartzeko adinako espaziorik. Hamar urte daramatza Leka Eneak, zonala jokatzera Galiziara joaten. Horregatik, lan handia badakar ere, antolatzearekin pozik dago Gorka Fernandez: “Bidaiak eta hoteletako egonaldiak aurreztuko ditugu”. Neskak, jakina, ez dira iritzi berekoak. Bidaiatzea nahiago dutela onartu dute, barrez.

XABIER ALONSO, ultrafondista:

“Proba luzeetan, sekulako beheraldiak izaten dituzu”

Erronkaz-erronka egiten du aurrera Xabier Alonsok. Maratoiak labur geratu zitzaizkion, eta 100 kilometroko probekin ausartu zen. Denborarekin, 200dik gorakoak egin ditu, eta 24 ordukoak ere bai. Azaroaren 27an, 100 kilometroko Munduko Txapelketan parte hartuko du, Murtzian. Ricardo Toro herrikidearen marka hobetzea du helburu (7:26). Aitzindaria izan zen Toro ultrafondoko probetan, eta haren bideari heldu dio orain Alonsok. 36 urterekin, uste du oso gaztea dela, oraindik, horren proba luzeetarako. Baina maila ona ematen ari da, hala ere.

Zegama-Aizkorri prestatzeko hasi zinen korrika. Gogor ekin zenion, gero.

Bai, ni txirrindularitzan lehiatzen aritu nintzen, jubeniletara arte. Gero zikloturista ibili nintzen urtetan. Mendira joatea ere atsegin nuen, eta mendi lasterketen moda hasi zenean, Zegama-Aizkorri maratoirako izena eman nuen. Berako mendi maratoi erdia egin nuen lehenago, eta gustatu zitzaidan.

Normalean, errepidean ibiltzen diren atletek mendirako jauzia ematen dute. Zuk, berriz, alderantzizko bidea egin duzu. Zergatik?

Ehun Milak proba ere egin izan dut behin baino gehiagotan. Baina kontua da, mendian, oinez joan zaitezkeela tarteka, jaitsierak ere badituzula, eta ondorioz, esfortzua oso irregularra dela. Asfaltoan, aldiz, antzeko erritmoari eutsi behar diozu, eta urratsak berdinak dira beti. Askoz astunagoa da.

Hori ona da? Erakargarria iruditzen zaizu?

Niri gero eta erronka handiagoak bilatzea gustatu izan zait beti. Gainera, uste dut beste filosofia bat dutela ultrafondoko lasterketek. Erronka dira, lehia baino gehiago. Korrikalarion laguntzaileek, adibidez, parte hartze handia izaten dute. Estatuan ez dago ultrafondoko lasterketen tradiziorik, baina Frantzian, Alemanian edo Europako beste herrialde batzuetan, oso giro polita izaten da probetan.

Proba bereziak egin dituzu. Zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Spartathlon egin dut, Grezian. Atenas eta Esparta lotzen dituen lasterketa da, 246 kilometrokoa. Herodoto historialariak kontatzen duenaren arabera, k.a.490. urtean Filipides mezulariak distantzia hori osatu zuen egun eta erdian, Maratongo guduan zehar, Espartara laguntza bila joateko. Oso lasterketa berezia da. Zuriz jantzita joan beharra dago, eta iturri sakratu bateko ura ematen dizute. Helmugara iristen zarenean, Leonidasen estatuari musu eman behar diozu, eta oliba hostoekin egindako koroa jartzen dizute ondoren.

Milano-San Remo ere egin nuen (290 km). Autoz egin zuten, lehenengo, lasterketa hori. Gero bizikletan egin ote zitekeen probatu zuten, eta klasiko famatu bilakatu zen. Orain, korrika ere egin daitekeela frogatu dugu.

Nola entrenatzen duzu? Ezingo duzu astero 100 kilometroko entrenamendua egin.

Regulo Martinez entrenatzaileak egiten dit planifikazioa, baina nire egoeraren arabera moldatzen dut. Orain, 100 kilometroko lasterketa bat prestatzen ari naizela, larunbatetan 30 kilometroko entrenamendu bat egiten dut, eta 50eko beste bat igandean. Astean zehar, serieak. Spartathlon bat, edo 24 orduko lasterketa bat prestatzeko, aldiz, 12 orduko irteerak egin izan ditut, bidean jateko geldituz etab. 100 kilometrotik gorako lasterketetan, gorputza esfortzura ohitzea bezain garrantzitsua da motibatuta egotea, eta gogoz aritzea. Proba luzeetan, sekulako beheraldiak izaten dituzu. Oso kontzentratuta egon behar duzu. Arlo mentalean orekatuta egotea oso garrantzitsua da.

Beste xehetasun asko egongo dira, kontuan hartu beharrekoak.

Bai, noski. Hasieran ez nuen ideiarik, baina esperientziarekin ikasiz joan naiz. Zein arropa eraman, baselina non eman, zer eta nola jan etab. Elikadurarena konplikatua da, adibidez, nik oraindik ez dut ondo asmatzea lortu. Lasterketa labur batean, xehetasun horiek ez dute garrantzi handirik. Baina zortzi ordutik korrika aritzeko, kontuan hartzeko modukoak dira.

100 kilometroko Munduko Txapelketan parte hartuko duzu. Gogoz?

Ezustean harrapatu ninduen. Espainiako Txapelketan parte hartu nuen, baina nire marka hobetzeko asmoz, sailkatzeko helbururik gabe. Bigarren izan nintzen, eta Mundialean parte hartzeko plaza lortu nuen. Lasai joango naiz, presiorik gabe. Animatuta nago, dena den. Mundu mailako onenen artean ariko naiz.

Nolako lasterketa espero duzu? Zein helburu jarri diozu zure buruari?

7:38 da nire marka onena, baina uste dut hobetu dezakedala. 10 kilometroko zirkuitua izango da, bihurgune askorik gabekoa, eta lau-laua. 7:20 inguruan egon naitekeela uste dut. Maila handiko aurkariak egongo dira, eta lehia handiagoa izango da.

Bestalde, pozik nago, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldea ordezkatuko dudalako Mundialean. Oso harro nago klubaren parte izateaz, sekulako lana egiten duelako haurrekin, atletismoaren balioak transmitituz.

Aiako Harriko hiru tontorrak: Erroilbide (832m), Txurrumurru (821m) eta Hirumugarrieta (806m)

Denbora: 4:30.
Distantzia: 13,13 km.
Desnibela: 683 m.
Zailtasuna: Zaila. Gogorra da, aldapa handiak baititu. Arriskutsua ere izan daiteke, harri tarte batzuetan, eta uztaien igarobidean, batez ere.

Pagogainako aparkalekuan hasten da ibilbidea, eta Aiako Harriko tontorrak inguratzen dituen kanalera jaisten da, Aritxulegiko leporaino. Handik tontor altuenera igotzen da, Erroilbidera (832m). Bi kilometroren buruan Txurrumurrura heltzen da (821m) eta Hirumugarrietara (806m) ondoren. Muganix tontorretik pasatzen da gero (758m), errepidera jaitsi eta aparkalekuan amaitzeko. Ibilbide biribila da.

Sorotxiki aparkalekuan ekingo diogu ibilbideari, GI 3454 errepideko 10 eta 11 kilometroen artean. Errepidearen beste aldean, San Anton urtegirako bidea zehazten duen seinaleari jarraituko diogu. Harrizko pistan zehar egingo dugu aurrera, eta hamar minutu pasata, ezkerrera doan bihurgune baten erdian, eskuin aldera doan bidexka hartuko dugu, kanaleraino. Lau bat kilometro eder egingo ditugu kanalaren ondo-ondotik.

NA-4000 errepidera irtengo gara (ordu bete), eta eskuin aldera doan bidea hartuko dugu, baserri-jatetxe baten ondotik. Aritxulegiko lepora helduko gara (1:30), eta Elurretxera bidean jarraituko dugu. Eguneko lehen aldapa gogorrari egingo diogu aurre. Tontorretara bideratzen gaituen kartelera iritsiko gara (2 ordu). Hortik aurrera, marka biribil gorriei jarraituko diegu, Erroilbidera bidean granitozko arroken artean ez galtzeko. 3.ordua betetzerako, tontor altuenean izango gara (832m).

Erroilbideren eta Txurrumurruren artean, uztaiaren igarobidea dago. Harrizko horma da, eta uztaia dago, nahi izanez gero, soka batez lagundu ahal izateko. Beti arretaz, baina arazo handirik gabe igo daiteke. Arriskutsuagoa izan daiteke jaistea, harria bustia baldin badago, batez ere. Ahalegin txiki baten ondoren, Txurrumurrun egongo gara, beraz (821m). Hirumugarrietara (806m) daraman bideak ez du aurrekoaren zailtasunik, eta hamar minutuko kontua izango da.

Biribil gorriak jarraituta, Muganix tontorrera helduko gara (758m). Hiru tontor nagusiak baino iparralderako dago. Begiratoki ederra da. Atzera egingo dugu gero, bide beretik, Hirumugarrietatik gertu dagoen hesira (4 ordu). Ezker aldera geratzen den bidea hartuko dugu, maldan behera, errepideraino. Beste bi kilometro egin beharko ditugu Irun aldera, Sorotxikiko aparkalekura bueltatzeko.

MATRIKULA DOHAINIK
DANZA TATIANA
Deitu 943 61 48 89
edo idatzi tatianas@euskalnet.net
UDAN ERE, ASTINDU GORPUTZA!!!
Multi-Gym, Pilates, Sevillanak eta latindar erritmoak
TAILERRAK:
Defentsa pertsonala, makillajea, saltsa eta bachata

GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

Txingudi LH2

Eguzkitza DBH1

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Telesbistan hainbeste iragarkiren beharrean gaude?

Niri telebista ez zait asko gustatzen, baina ikusten dudanean, gutxien gustatzen zaidana hainbeste iragarki egotea da. Zerbait ikusten ari naizenean eta bat-batean 5 minututan iragarkiak egotea ez zait gustatzen. Horregatik gehienetan telebista ikusteaz nekatzen naiz eta ez dut ikusten.

Izan ere, iragarkiak jarri behar dituzte eta batzuetan lagungarriak dira, adibidez, zerbait erosi behar duzu edozertarako eta iragarki batean ikusten baduzu, non aurki dezakezun dakizu. Nire ustez, iragarki gutxiago jarri behar dituzte eta ezberdinak, azkenean nekatzen zarelako.

Iria Bernal

EGUZKITZA BHI - 1. maila

S.R.A.ri andereari jasoa (1959 ekaina). (El Bidasoa, 1959-VII-17).

Lari Laraufa

Lari laraufa
Mikella-Anttoni
lari laraufa
Sanpantzarrori
sorgina´re omen da
akelarren jarri
aufa izan ezkero
ongi bizi bedi.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Presarik gabe

Zortzi urteko ibilbidea osatu du Sacco musika taldeak

Gaztaroko proiektu asko sortzen diren moduan piztu zen Saccoren sua. "Parrandan izaten den berotasunean", onartu du Xabi Zabalak. Iturburu hori duten ideia asko bidean galtzen dira, ahaztuta. Sacco taldearenak, ordea, aurrera egin zuen. Hiru lagun elkartu ziren, 2008an: Zabalaz gainera (baxua eta ahotsa), Ander Zabalegi (bateria) eta Borja Toval (gitarra). Beste proiektu musikalak izan dituzte, eta badituzte, oraindik ere. Saccorekin lasai ibili dira beti, mantso, baina harro daude egindako bidearekin.

Ez zuten taldea asmo jakin batekin eratu. Antzeko musika gustuko dute, eta eragin batzuk badituzte, behintzat. Baina ez zuten musika estilo jakin bat jotzeko helburua eduki. Neurri handi batean, onartu dutenez, ez direlako birtuosoak instrumentuekin. "Ezin zaigu gehiegi eskatu. Ateratzen zaiguna egiten dugu, besterik gabe", baieztatu du Xabi Zabalak. Musika iluna ateratzen zaie, abestien hitzak bezala. Ideia edo sentimendu abstraktuei buruz idazten dutela azaldu du Zabalak, hitzekin ere, gabeziak dituztelako: "Gustatzen zaigu literatura, baina ez gara idazleak. Gure mugak ditugu. Gainera, akats bat egin izan dugu beti. Inoiz ez diegu hitzei merezi duten garrantzia eman".

Erritmo motelak hautatzen dituzte, askotan, haien abestietarako. Taldearen abiadura ere hori izan dela aitortu dute. Entsegu lokalean lagunekin trago batzuk hartu eta zarata ateratzeko elkartuz hasi ziren. Pixkanaka kantuak, edo zatiak sortuz joan ziren. Baina soseguz, beti ere. "Amateurra da egiten dugun lana. Beste ogibide batzuk ditugu, eta konpromiso handia eskatzen du taldeak", azaldu du Ander Zabalegik. Abantailak ere baditu egoera horrek, askatasunarena, esate baterako. Inolako presiorik gabe aritzen direla aipatu du Xabi Zabalak: "Musikari profesional batek izan dezakeen estresik ez dugu".

Eredu baten alde lerratu dira

Taldearen etika, barne koherentzia eta bestelako eztabaida ideologiko eta filosofikoak ere errazten ditu askatasun horrek. Adibide egokia eman du Xabi Zabalak: "Nahi dugun tokietan jotzen dugu, nahi dugun baldintzetan". Gehienetan, gaztetxeetan edo okupatutako etxeetan jo izan dutela zehaztu du Ander Zabalegik, bat egiten dutelako planteatzen duten ereduarekin: "Gure ligako taldeentzat, gaztetxeak ezinbestekoak dira". Kontzertuek ematen duten adrenalinarekin gozatzen dute biek, baina emanaldien inguruan egoten denari ere begiratu dio Zabalak. Euskal Herria osoan, eta Espainiako eta Frantziako estatuetan jotzeko aukera izan dute: "Bidaiatu dugu, jendea ezagutu dugu, eta norbaitek diskoa erosi digunean, edo kontzertu ederra eman dugula esan izan digunean, sentsazioa ikaragarria izan da".

> "Gure ligako taldeentzat, gaztetxeak ezinbestekoak dira"
>
> **Ander Zabalegi**

> "Musikari profesional batek izan dezakeen estresik ez dugu"
>
> **Xabi Zabala**

Argitaratu duten disko bakarra grabatzeko, Bonberenea gaztetxeko estudioa hautatu zuten. "Baloratzen dugu Euskal Herriko musika talde txikien alde egiten duten lana. Modu xume batean haien proiektuarekin bat egitea, ederra izan da", esan du Zabalak. Bertan, Karlos Osinaga Txap irundarra aritzen da teknikari. Erreferentea da, gaur egun, euskal musikan. Baina Saccoko kideen laguna ere bada. "Gertukoa da, eta oso ondo ulertu zuen diskoarentzat genuen ideia. Oso mamitsua izan zen esperientzia. Gogorra ere bai", aitortu du Ander Zabalegik. Lehen aldiz sartu ziren estudio batean, eta haien mugak ulertu zituen Osinagak. Zorrotza izan zela aipatu du, hala ere Zabalak, eta estutu egin zituela.

2014an argitaratu zuten taldearen izen bereko diskoa. Bide Huts diskoetxearekin argitaratu zuten, adiskidetasun eta senidetasun harremana dutelako haiekin, eta bat egiten dutelako ekoizpenaren inguruan duten filosofiarekin. "Bide naturala izan da", onartu du Xabi Zabalak. Diskoa mugarria izan zela aitortu dute biek, kontzertu gehiago emateko ateak ireki zizkiela. Aurretik izan zituzten zailtasunak gogoratuta, ordea, eta herriko beste taldeei begira, ulertzen dute jendeak entsegu lokaletik irteteko denbora asko behar izatea. Tabernetan jotzea, adibidez, gero eta zailagoa dela azpimarratu du Ander Zabalegik: "Gizartea gero eta arautuago dago, eta horrek eragina du musikan". Egoera horren aurrean, kalea aldarrikatzeko deialdia luzatu du Xabi Zabalak: "Kalea gero eta gutxiago da gurea, eta gero eta gehiago boteredun jendearena".

Ander Zabalegi, Xabi Zabala eta Borja Toval.

ZER EGINGO ZENUKE 200.000 EUROREKIN?

16 eta 30 urte bitartekoa bazara, urriaren 19ra arte duzu epea zure proposamena egiteko Irun hobetzeko, aldatzeko, gaztetzeko...

Eta azaroaren 4tik 10era…Eman botoa eta aukera ezazu gehiago gustatzen zaizun proiektua!

GAZTEEKIN. BIZITZARAKO TREBETASUNAK.

Zure zalantzak eta esperientziak partekatu, arazoen irtenbideak pentsatu eta bilatu, orientazioa eta laguntza jaso...

Trebetasunei buruzko tailerrak 12-14 urteko nerabeentzat

-Emozioak eta sentimenduak nola gidatu (1.go hiruhilekoa).
- Arazoak konpontzea (2. hiruhilekoa).
- Komunikazioa (3. hiruhilekoa).

Egunak: azaroak 3, 10, 17 eta 24; abenduak 1 eta 15; urtarrilak 12, 19 eta 26; otsailak 2, 9, 16 eta 23; martxoak 2, 9, 16 eta 23; apirilak 6 eta 27; eta maiatzak 4.

Ordua: 17:30etatik - 18:45etara.

Laguntzeko taldea 15-17 urteko nerabeentzat
-Gogoetarako eta elkar-trukerako gunea. Azarotik maiatzera arte.
Egunak: azaroak 3, 10, 17 eta 24; abenduak 1 eta 15; urtarrilak 12, 19 eta 26; otsailak 2, 9, 16 eta 23; martxoak 2, 9, 16 eta 23; apirilak 6 eta 27; eta maiatzak 4.

Ordua: 18:45etatik - 20:00etara.

*Izenemateak: irun.org edo 010 telefonoan. Urriaren 22ra arte, doan.

ESTATU BATUETAN EDO KANADAN BATXILERGO IKASKETAK EGITEKO 500 BEKA

Espainiako hezkuntza-sistemaren barruan Batxilergoko lehenengo mailari dagokion ikasmaila bat egiteko aukera.

Deitzailea: Amancio Ortega Fundazioa.

Edukia:
* 80 beka Galiziako Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasleei emango zaizkie.
* 420 beka gainerako autonomia-erkidegoetako ikastetxeetako ikasleei emango zaizkie.

Epea: 2016ko azaroaren 15a.

VII.GAZTEZULO BIDEO LEHIAKETA

Urriaren 7an hasi eta azaroaren 10era arte aurkeztu ahalko dira lanak.

16 urtetik gorako pertsonek parte hartu ahalko dute, bai bakarka bai taldeka, eta gaia librea izango da.

Bideoen iraupena gutxienez minutu batekoa izango da, eta gehienez 3 minutukoa (kredituak barne). Hizkuntza euskara izango da eta aurkezten diren bideoek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

UDAZKEN HONETAN, BERRIRO... ASEXORA ZAITEZ

ASEXORATE

Plantea itzazu zure zalantzak, hausnarketak, zailtasunak edo bitxikeriak era anonimoan!!!

***Sexu AHOLKULARITZA**
Psikologo-sexologo batek erantzuna emango die zure zalantzei.
Eguna: urriaren 28, ostirala, 17:00etik 19:00era.

ZATOZ IGAZTERA!!! CBANn gaude, -1 solairuan.

DOAKOA eta KONFIDENTZIALA

Eta nahiago baduzu, **"Egin zure galdera"** www.irun.org/igazte web orriaren bidez, emailez: igazte@irun.org, telefonoz: 943 505 444, 943 505440, edo whatsapp bidez: 607 771 173.

gazte ARTEan

AZAROKO TAILERRAK:

- Garaiko elikagaiak potoetan sartzea, kontserbatzea. 20 plaza
Tailer honetan teknika desberdinak erakutsiko dira (ozpinetan, oliotan, azukrean...) eta garaiko elikagaiak nola ontziratu aholkatuko da, urte osoan aprobetxatu ahal izateko.

Data: Astearteetan, azaroaren 8tik 29ra.
Ordua: 18:00etatik 20:00etara.
Adina: 13 eta 30 urte bitartekoentzat.

- Arropa birziklatzea eta moda sortzea. 20 plaza
Ikastaro honen helburua da jantziak edo osagarriak dekoratu eta berriak sortzea, oihal edo arropa zaharrak berrerabilita. Tailer horretan honelakoak landuko dira: arropa tindatu, behea hartu, gona bat kamiseta bihurtu, eta gainera, josteko makina erabiltzen ikasteko klaseak emango dira, beste gauza askoren artean.

Data: Ostiraletan azaroaren 4tik abenduaren 16ra.
Ordua: 18:00etatik 20:00etara.
Adina: 13 eta 30 urte bitartekoentzat.

*Izen-emateak irun.org web gunean.

"AMETSETAKO GIZAKIAK" graffiti eta diseinu erakusketa

Norena: Mikel Etxeberria.
Noiz: urriaren 21etik azaroaren 19ra arte.
Ordutegia: asteartetik larunbatera 17:30etatik - 20:30etara.
Lekua: Matindozenea Gaztelekua (Elizatxo, 18 - La Salle ikastetxearen ondoan).
Eta gainera, artista lan egiten ikusi ahalko duzu sorkuntza irekiko egonaldian.
Eguna: urriaren 17tik 20ra.
Ordutegia: 18:00 - 20:00.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

txingudionline.com

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Urriak 15
Zer? “Mariana Pineda” obraren irakurketa, Federico García Lorca egilearen heriotzaren 80.urteurrenean.

Non? Kabigorri Ateneoan. Peña Kalea, 1.

Ordua? 19:30.

Prezioa: doan.

Urriak 16
Zer? Girabira-Txikimusika. Kontzertuak eta haurrentzako musika tailerrak.

Non? Mendibil parkean.

Ordua?12:30-16:30.

Prezioa: doan.

Urriak 17-20

Zer? Gazteartean Expo-Sorkuntza egonaldia, jendeari irekia. Mikel Etxeberriaren eskutik.

Non? Martindozenea Gaztelekuan.

Ordua?18:00-20:00.

Prezioa: doan.

Urriak 19
Zer? Amnesty International GKEren hitzaldia.

Non? Argoiak Kultur Elkartean.

Ordua? 17:00.

Urriak 22
Zer? Lapuriturri-”Onddoen bila” irteera.

Non? Irteera Lapuriturriko informazio gunetik (Erlaitzen).

Ordua? 9:00-13:00.

Prezioa: Doan.

Izen-ematea: 010 / 943505152 .

Urriak 22
Zer? Opera: “El barbero de Sevilla”, G.Rossini. Luis Mariano Lirika Elkartearen eskutik.

Non? Amaia KZ.

Ordua? 19:00.

Prezioa: Bazkideak: 25 euro; Bazkide ez direnak: 32 euro; 30 urtetik beherakoak, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago: 5 euro.

Salmenta:
-Interneten bidez.
-Irungo Turismo bulegoan,Luis Mariano plazan.
-Leihatilan, ikuskizunaren egun berean

Urriak 28
Zer? II.Irun Reggae Festival.

Non? Tunk Aretoan.

Ordua? 21:00.

Prezioa: 5 euro.

Parte hartuko dute: Seo&Dodosound, Dinswash, Ras Miguel&Tafari eta Band Sound System.

BIDASOKO ABESBATZEN X. JAIALDIA

Ostirala, 14:
- Larreaundi abesbatza (Irun).
- Xatz abesbatza (Hondarribia)
- Ochote Ozenki (Donostia)

Larunbata, 15:
- Landarbaso Abesbatza (Errenteria)

Igandea, 16:
- Cum Jubilo abesbatza (Donostia)
- Betiko Ametsa abesbatza (Irun)

Non? Amaia KZ.

Ordua? 20:00.

Prezioa: 6€ bazkide ez direnek, eta 4€ bazkideek. Hiru eguneko bonoetarako, 15€ bazkide ez direnek, eta 10€ bazkideek.

Salmenta:
-Internet bidez.
-Irungo Turismo bulegoan.
-Leihatilan, egun berean.

asistencia
familiar 24

Etxez etxeko laguntza · Ospitale-akonpainamendua
Etxe eta umezain zerbitzua · Prestakuntza ikastaroak
Telelaguntza · Zentro geriatrikoak

24h **943 10 73 56 - 670 37 21 47**

"Zure lasaitasunerako, egun osoan zehar zu zainduz"

Colon Ibilbidea, 27 1º - Of.3 - 20302 Irun (GIPUZKOA)

www.asistenciafamiliar24.com